

Antzerkia

Antton Luku

Idazlea (1959, San Frantzisko, AEB). Urteak daramatza antzerkigintzan, haietako hamar Hiru Puntu taldearekin. Harentzat prestaturiko *Fauxto* antzezlanetik abiatu idatzi du *Euskal Kultura?* liburua (Pamiela). Diagnosi moduko bat egiten da bertan, mekanikaren azterketa moduko bat. Haren arabera Frantziak erabakitzen du zer den kultura eta zer ez, eta delegazioa onartu egin du neurri batean Ipar Euskal Herriko euskal kulturgintzak. Besteren begiz ikusten du bere burua kulturgintzaren zati batek. Horren aurrean, besteek maite dutena ahanzi, eta aritzeko aldarria da Lukurena. Gure gisa, gure kasa, gure leketan. Liburuan dioenez “Apartheid”-a irauli behar dugu gure alde.

IÑIGO ASTIZ

Argazkiak: Bob Edme

«Garaia da kolonizazioari eza emateko»

Euskal kultura? Galdera hori da zure liburuaren izena. Galdera ikurrarekin. Liburuaren azalean, baina, sator moduko baten irudia agertzen da hatzarekin seinalatuz. Eta esango nuke gehiago duela liburuak hatz horretatik, salaketatik, galderatik baino.

[Eten luze bat] Ez dut uste. *Fauxto* antzerki lanaren afixa da azaleko irudia, eta ageri diren

lau irudietatik bakarra ari da hatzarekin. *Ziritzilak* dira irudi horiek, edo *beltzak*. Herri antzerkiko pertsonaiak. Ongi izatearen kontra, eta pentsamendu zuzenaren kontra altxatzen den posizio bat irudikatzen dute. Erdi-koa da seinalatzen duena, baina seinalatu baino gehiago hasten da orroz. Kopeta apaltzen ez duenaren jarrera da. Salaketa bat

bano gehiago “fuck” moduko bat. Hori da zirtzilaren jarrera; ausartzearena.

Ez makurtzearena.

Ez dut egundaino pentsatu “liburu bat idatziko dut hortaz”. Nik antzerkia egin nahi nuen. Eta *Fauxto* idatzi nuelarik, karrusa bat izan zedin nahi nuen. Toberaren sinonimoa da karrusa, Garaziko hizkeran, baina librea dago hitza, tobera, azken urteetan epaiketara, jujamendu eta salaketarentzat baliatua izan delako. Eta aukeratu nuen euskal kulturaren gaia, atzematen bainuen gai horretan polemika zela, eta, beraz, toberagai zela.

Galdera ikurra sortzen duela, beraz.

Bai, eta antzerkia prestatzen hasi nintzela konfliktuak sortu ziren hortik. Pentsatu nuen: nor da zirtzil hori? Zer pentsatzen du euskal kulturaz zirtzil horrek? Eta hark? Ikuspegi desberdinak atera ziren. Eta nire buruari egin diot galdera; ni non naiz? *Fauxto*ren istorioa hortik atera dut. *Fauxto* gara espresuki euskaltzale konbentzitu, edo euskaltzale militante, edo ari diren horiek oro. Eta ari dira, nolabait ere, gure euskal kultura ikuspegi inposatzen, euskaldun guztien apaizak balira bezala, edo bagina bezala. Eta ikerketa intimo baten gisa idatzi dut liburua, horregatik. Xerkatu dut mekanika, nola funtzionatzen zen euskal zera, eta orduan fabrikatu dut euskal mekanika horren nire ulermenena. Galdera ikurra bazen enetzat, egiazki.

Salaketa eta aldarria ez dira urrun. Nahiago baduzu aldarria esango diogu.

Orain diagnostikoarena iragana da, nire problema da nola luzatu liburuaren azken atala, misioena. Konprenitu dut batzuek ez dutela

Donibane
Garaziko Kalaka
ostatuan eserita
hitz egin du
Antton Lukuk
Euskal kultura?
liburuaz. Hiru
Puntu
taldearekin
bukatu ondoren
dituen planez
ere galdetu
diogu. Bukatu
duela pentsatu
nahi du: “Nik
nahi nuke
horrela bukatu.
Bat oroitzen da,
‘gizon hori omen
idatzi zuen
antzerki bat
denboran’, eta
beste batek ‘ah,
bai?’, eta hor
uzten dute dena.
Hori gustatzen
zait niri”.

egiten euskal kultura, baizik eta euskal etiketa duten ikuskizun batzuen difusioa. Egin bezate. Hor dira bereizten gure bideak. Ene arazoa ez da hori, ene arazoa da euskaldun guztiek berena kontsideratzen dutena egitea, eta ez saltzen dena.

Elkarriketa batean haxe esan zenuen: “Profesionalak merkatu batean kokatzen dira, eta amateurak komunitate batean”.

Profesionalena ez da ene problema, mekanika frantsesarena da arazo hori, ze haiek dute bereizketa hori egiten. Guk horien gain utzi dugu ardura ere, eta onartzen dugu sailkapena. Baina sailkapen horrek ez du deus erran nahi enetzat. Ni ari naiz kontzentratzen gure egitekoetan. Artistaren libertatea oinarritzkoa da. Musikari bati, adibidez, ezin zaio erran zer egin behar duen, baina ezin zaio erran jendea-ri ere, “behar duzue hori preziatu, edo bestela ez duzue fitsik konprenitzen kulturaz”.

Badira kodeak; gero, bada alfabeto bat jendea hau edo hori maitatzera daramana. Eztei guztiak hasten dira vals batez, bai, baina goizeko lauetan botatzen ahal duzu New Yorkeko funka, eta, gainera, errango dute geniala dela musika. Alderantziz eginez gero ez. Hortik behar dugu abiatu. Euskal antzerkia izan dadin, jendeak jakin behar du zirtzila zer den. Ez badakite, hobe dut *No* antzerkia egin!

Eta hor sartzen da liburuan aipatzen duzun beste gai nagusietako bat, transmisioarena. Jendeak kode horiek ezagutzen ez baditu, ezin funtzionatu.

Bai. Euskal Kulturaren euskal komunitatea ukan behar da gogoan, euskaraz funtzionatu nahi duen komunitate guztia. Publiko birtual hori gogoan atxikitzen baduzu, delako kode horiek behar dituzu gogoan hartu. Eta kode horiek denek izan daitezten, transmititu behar dira nonbait. Hori da bilatu behar dena.

Transmisio guneak behar.

Bai, eta bada beste gauza bat izugarri inportantea dena niretzat: arteen arteko gurutzaketa. Musika, dantza, antzerkia... mundu bera da hori dena, sorkuntzarena. Horiek orain, klaseak ematen baitira, ez dute haien artean kontakturik. Eta hala ez da sorkuntzarik izaten ahal. Lekuak behar dira, eta pentsatu beharra da leku horiek non ezarri behar diren. Antzerkilari bat eta musikari bat,



aldagela berean izan behar dira, eta sartu behar dira ate beretik.

Batu egin behar, ez soilik komunitatea kode batzuen barruan, baizik eta baita sorkuntza alor ezberdinak sorkuntzaren beraren baitan.

Antzerki hitza neologismo bat da, adibidez. Hemen erraten da *besta*. Dena bat eginda. Hitz generiko bat bada, bere pean musika, dantza eta bestelakoak hartzen dituena. Dibertitzeko egiten den zerbait. Eta nik uste dut batasun hori, gure libertimentua dena, berreskuratu behar dela. Uste dut zubiak naturalki hor direla.

Liburuan aipatzen duzunez, baina, besta horrek ez du lekuri kultur erakundearen finantzaketa sisteman.

Orain Iparraldean den arazo handiena lekuarena da. Badira herriko salak, baina ez direnak eginak ikuskizunerako, beste batzuk Frantziatik kontrolaturiko zirkuitu ofizialarenak direnak. Ez da leku fisikorik. Jendeak naturaltasunez bilduko dituen gune fisikoak atzeman behar dira. Plaza zena, egun, aparkaleku bat da. Ez da leku bat non jendea gurutzatzen den. Transmisioa egin behar bada, pentsatzekoa da gunea. Bizi espazioei lotuta egon behar da lekua. Hori da lehena.

Bigarrena, liburuan aipatzen den utzikeria aldatzea. Jendeak pentsatzea: “Bai lortu dugu instituzio bat, eta horrek egingen du lana, eta ni joaten ahal naiz promentzera”. Behar da erran, dakienari erakutsi behar dela, hori beti izan dela horrela, eta horretan behar dela berriz sinetsi. Dirua lortzeko bidea gero dator. Lekua baduzu, eta maisua baduzu, egingen da zerbait. Soilago, agian.

Nolabait ere, gure burua besteen begieztatu ikusi dugula diozu, eta hori gaingaitu beharra dagoela.

Kanpoko begiarentzat aritzea da gure akatsa. Guk egiatasun handiz behar dugu bilatu zer maite dugun, zeri deitzen diogun besta. Nik uste dut liburuaren akatsetariko bat dela (anitz ditu) Iparraldeko ikuspegitik ikusia dela Hegoaldera eramateko. Wilhelm Von Humboldt-ek jadanik XIX. Mendean erran zuen euskaldunak ez direla bat; badela Iparraldea eta Hegoaldea; Hegoaldean badutela nazioa diren kontzientzia, eta Iparraldean hizkuntza dutela aberria. Niretzako funtsezkoa da definizio hori, izugarri irekia, efikaza, integratzailea atzematen dudalako. Akatsa ere bada, ordea, eskaera politikorik ez dugula, eta pentsatzen dugula kolonizatuaren bidetik, behar dugula handiari galdegin ongi ari garenez edo ez. Uste dut, nahiz eta

“Uste dut liburua gaizki ulertu dela, baina jende horiek gaizki ulertu nahi zutelako”

“Konprenitu dut batzuek ez dutela egiten euskal kultura, euskal etiketa duten ikuskizunen difusioa baizik”

pentsatu hizkuntza dugula aberri, garaia dela kolonizazioari eza emateko, ze deskolonizazioa fini da aspaldi. Euskal kulturak ez du justifikapenik behar kanpoan.

Liburuak bat baino gehiago haserraraziko zuela pentsatzen dut.

Uste dut liburua gaizki ulertu dela, baina jende horiek gaizki ulertu nahi zutelako. Erreakzioa orain arte ez ditut baikorrak baizik entzun, baina lagunak dira mintzo. Badakit badela mundu bat ez dena ados izanzen errandakoekin. Herri tradizioan bertsoari ematen zaio arrapostua bertsoz, eta liburuari liburuari buruz. Egin bezate.

Zuk Hiru Puntu antzerki taldea izan duzu hamar urtez guzti horri neurria hartzeko. Badirudi baina bukatu egin dela bide hori, ezta?

Antzerki talde amateurak beheeraka zihoazenean hasi ginen. Antzerki baten emateko, testua eta aktoreak behar dira, eta *Tu Quogue Fili* antzezlanaren idatzi nuen. Sei pertsona bildu ginen, eta sei pertsonaia behar genituen. Bestetik, antzerkiak memento goxo bat pasatzeaz gain, beste zerbait izan behar duela uste dut. Eta hitz hartze hori zen lortu nahi genuena. Hori izan zen Hiru Puntturen sorrera. Hitza hartzera joatea, fite montatzera joatea, eta taldea diren jendeekin egitera.

Baionan Bizj, Hotel du Fronton, Lurra, Beltzeria, Escualdunac eta *Fauxto* dira lehen emanaldi haren ondoren Hiru Puntturen plazara ateratu dituen lanetako batzuk. Luku da taldearen hamar urteetan denetan izan den bakarra ordea, eta dioenez, hori izan da taldea amaitutzat emateko arrazoi bat. Antzerki taldeek proiektu mugatuak behar luketen sinetsmena izan da bestea: “Berpentsatu egin behar direlako gero”.

Eta orain zer egin behar duzu?

Nik orain... eh... nahi dut pentsatu bukatu dudala. Memento horren beharra dut.

Isiltasuna, beraz; urte sabatikoa?

Bai, halako zerbait. Biziki maite dut orain nire inguruan, azokan eta, jendeak erraten duenean: “Badakizu gizon hori? Horrek klarineta jotzen zuen”, edo “badakizu hori sekulako dantzaria izana dela?”, eta hark ahantzia du dantzaz, guztiz ahantzia. Nik nahi nuke horrela bukatu [malkorik isuri ez, baina begiak nabarmen busti zaizkio hitz horiekin]. Bat oroitzen da, “gizon hori omen idatzi zuen antzerki bat denboran”, eta beste batek “ah, bai?”, eta hor uzten dute dena. Hori gustatzen zait niri. ■